

## **2012KO UZTAILAREN 20AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogei

**HILABETEA:** Uztaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamabia.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortzietan

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

**ETORRI GABEA:** Unai Baztarrika Otegi

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2012ko uztailaren 3ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK ESLEITZEA.** Beasaingo udalerrian hainbat espaloi berritzeko obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2012ko uztailaren 20ko Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamena:

### **“AURREKARIAK**

**1.-** 2012ko maiatzaren 7an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Beasaingo udalerrian hainbat espaloi berritzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 192.781,94 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 12 aste.

**2.-** Deialdia, 2012ko maiatzaren 15ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora 32 enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

**3.-** Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, lizitaziora aurkeztutako 32 enpresatik, bakarrik 6ak aurkeztu zuten dokumentazio guztia. Beste 26 enpresei osatzeko eta zuzentzeko errekerimendua egin zitzairen. Horietatik

enpresa batek ez zuen ezer aurkeztu. Beraz lizitaziotik kanpo geratu ziren (ikus 2. dokumentua).

4.- Gelditu diren 31 proposamen ekonomikoak ekintza publikoan ireki ondoren (ikus 3. dokumentua), KOLDO KEREJETA, S.L. enpresa lizitaziotik kanpo geratu da aurkeztutako proposamena, pleguan ezarritako eradurarekin bat ez datorrelako.

5.- Administrazio Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Araudiaren 85. artikulua araberak, merkeenak diren hiru eskaintzak (CONSTRUCCIONES MORGA, URBYCOLAN-GRAMA y CONSTRUCCIONES GAUZA, S.A), anormalak edo desegokiak izan daitezke.

6.- Horren ondorioz, errekeritu zitzaien eskaintza dokumentalki justifikatzeko eta 2012-07-11n, behar den entzutealdia eman zitzaien. CONSTRUCCIONES GAUZA, S.A.k ez du inolako dokumentaziorik aurkeztu eta ezta entzutealdia ere agertu.

7.- CONSTRUCCIONES MORGAK egindako baja honela hustifikatzen du: nahiz eta gastu orokorrak gehi industriako onura, %19 dela adierazi aurkeztutako eskaintzan, pleguak horrela eskatzen duelako, azken kontzeptu horretarako erabili duen kopurua txikiagoa izango da. Aldi berean, adierazten du, aurreikusita dagoen azpikontratazioa (errementeria, kalitatea eta esku-lana) baldintza pleguan ezarritako %15a ez duela gainditzen. Gipuzkoako lan-hitzarmena aplikatzeko konpromisoa hartu du, badirudi Bizkaikoa (enpresak, Lurralde horretan du egoitza) baina zertxobait baxuagoa delako.

8.- URBYCOLAN-GRAMA enpresak era bera eskaintza justifikatu du, adieraziz zoladura eta saneamendu kapituluei dagokien hornitzaile enpresak zeintzuk diren eta material horien osaketa, ezugarri teknikoak, ziurtagiriak, entsaioak eta kalitate-kontrolak zeintzuk diren zehaztuz.

Horren ondorioz, CONSTRUCCIONES MORGA enpresak, aurkeztutako justifikazioa onartu egin da eta bidez batez eskaintza ere ontzat emanda.

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Beasaingo udalerrian berrikuntza obrak egitea, CONSTRUCCIONES MORGA, S.L.ri esleitzea, **92.863,58 €**ko prezioan gehi 16.715,44 (BEZ). Guztira, 109.579,02 € Egikaritze epea, hamabi hilabetekoa izango da.

**Bigarren.** Adjudikaziodunari adieaztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- **4.643,18 €ko** behin betiko fidantza eratzea.

**Hirugarren.** Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasoro jaunak adierazi du esleitzea proposatzen zaionari lizitazio prezioarekiko %51,83eko baja egiteak zalantza sortzen duela eta ez dela bermatzen langileei Gipuzkoako lan-hitzarmena aplikatu behar zaienik. Abstenitu egingo dela adierazi du.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 2 (BILDU)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (EAJ, PSE-EE/PSOE; H1)

Horren ondorioz, gehiengo botoak aurkakoak baino handiagoak direnez, onartu egin da kontratazio mahaiaren proposamena.

**3.- OBRAK KONTRATATZEA.** J. M. Arana kaleko eta Bideluze plazako obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

2012ko uztailaren 3ko hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da, nahiz eta guztiek jakin oraindik ez dagoela Ur Agentziaren baimenik obrak egikartzeko eta arriskua dagoela obrak geldiarazteko:

“**Lehenik.** Deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa onartuz, prozedura irekiaren bitartez J. M. Arana kaleko eta Bideluze zubiko urbanizazio obrak kontratatzeke.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 406.701,80 € BEZ kanpo.

4.- *Kontratuaren iraupena:* 24 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:*

- a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 600.000 €ko aseguruaren egiaztapena.
- b) Azken bost urtetan gauzatutako obren zerrenda, gauzapean oneko ziurtagiriz bermatuak, zenbatekoak, datak eta obrak non gauzatu diren bertan adierazita.

6.- *Espedientea:* administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia:* Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak:*

- 1.- Proposamen ekonomikoa: 0tik 75 puntura.
- 2.- Obraren azterketa. Lan egitaraua: 0tik 15 puntura.
- 3.- Epea: 0tik 10 puntura.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunetan eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gozietako zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.